

DENAApp™



AURKIBIDEA

0.GURE IDEIA:	1orr.
1. BALIO PROPOSAMENA:	2orr.
2. MERKATU SEGMENTAZIOA: BEZEROAK	4orr.
3. FUNTSEZKO ELKARTEAK	6orr.
4. DIRU - ITURRIAK	7orr.
5. KANALAK	9orr.
6. HARREMANAK	11orr.
7. BALIABIDEAK	12orr.
8. JARDUERAK	13orr.
9. KOSTUAK	14orr.



0.GURE IDEIA:

Idea Bilbon erosketak egiten are ginenean sortu zitzaigun. Alegia, konturatu ginen nola dendaz-denda joan beharrak denbora asko xahutxera bultzatzen zigun, eta azkenean, gure etxera bueltatzen ginen inolako produkturik eskuratu gabe, ezin baitgenituen probatutakoak behar bezala alderatu.

Egoera honen aurrean, bururatu zitzaigun denda guztietarako katalogo bat izateak denbora asko aurreztu ahal genigula, eta horren ildotik jarraituz, gure ideia garatzen eta hobetzen hasi ginen. Era berean, gaur egun online erosteko dagoen joera antzeman genuen eta ideia ona iruditu zitzaigun *“choose, buy and pick”* dinamika herri dendetara bideratzea, horrela komertzio txikiaren interneteko merkatura sarrera ahalbidetuz.

Gure proiektua denden katalogo bateratua eskaintzen duen aplikazioa da, hortik bere izena; **“dena”** → produktu anitzeko katalogoa baitugulako; eta **“app”** → katalogo hori mugikorrarentzako aplikazio batean sartzen dugulako, eta hortik erreserbatu, alderatu eta erosi ahalko da. Ideia hau burura etorri zitzaigun erosketak egiteak pertsona askotan eragin dezakeen kaosa antzeman genuenean.

Logoa egiterakoan kolore biziak erabili ditugu, horrela kontsumitzaile potentzialen atentzioa deitzea bilatzen dugu. Horrez gain, kolore guztiak nahastu izanak gure aplikazioak eskaintzen dituen produktu aniztasunari egiten dio erreferentzia, eta gainera, bata bestearen gainean jarriz, 3D efektu bat lortzen dugu. Hala nola, kolore hori eta berdeak janaria edo kontsumo produktuak isladatzen dituen heinean, kolore more eta arrosak moda eta arropa isladatzen dute, eta atzekalde urdinak elementu guztiak *“saku”* berdinean sartzea adierazten du, azken finean, gure aplikazioan edozein motatako produktuak topatu daitezkelako. Logoan agertzen den *“D”*-ak *“dena”* eta *“denda”* hitzei egiten die erreferentzia. Hala ere, aipatzekoa da logoa egiterakoan hainbat ersoketako aplikazioetan oinarritu garela; Wallapop edo Vinted, alegia.